

IRAULTZARAKO EUSKARAK EZ DU BALIO

Hori zioten, bederen, XX. mende hasieran Bilbon argitaratzen zen *“La lucha de clases”* aldizkari sozialistako kideek:

“Nosotros decimos como lo sentimos, dadas las circunstancias actuales, quisiéramos un Gobierno que prohibiese los Juegos Florales, donde se ensalzan las costumbres de una región en detrimento de otras, que no permitiera la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional, que son causa de que los hombres de un país se miren como enemigos y no como hermanos.”

“El euskera debe desaparecer. Para reforzamiento de los lazos entre el País Vasco y España, el euskara debe obligatoriamente desaparecer; para los socialistas españoles la lengua vasca no tiene lugar en la sociedad moderna. El argumento mayor de los nacionalistas vascos es la lengua, enteramente diferente de la española.”

Garai hartan, ohikoa izan zen bertoko eta kanpoko hainbat intelektual eta idazlek euskararen kontra adierazpenak egitea. Pertsonaia horien esanetan, euskara, besteak beste, hizkuntza basatia, zakur zaunken parekoa, idazgaitza, arkaikoa eta diskriminatzailea zen. Eskuin kontserbadorea, ezker moderatua nahiz ustezko iraultzaileak euskara galtzearen alde azaldu ziren. Batzuk, Espainia edo Frantziaren handitasun eta batasunaren izenean; besteak, demokrazia eta zibilizazio modernoaren defentsan; eta zenbaitzuk, baita (gaizki ulertutako) klase batasunaren izenean ere.

Handik eta hemendik saiatu ziren euskara desagerrarazten. Unamunok berak, euskara bizi modernorako ezgai jotzen zuenez, ohorezko hileta elizkizunak egin eta lurperatu egin behar zela iradoki zuen, hizkuntza arkaiko hura garai berrietara egokitzen saiatzea alferrikakoa zelako.

Zoritxarrez, hainbat mintzairak izan dute patu hori historian zehar. Hizkuntza batzuk galtzea eta berriak sortzea ohiko fenomeno izan da. Alabaina, kezagarria da azken hamarkadetan asimilazio linguistiko eta kulturalak hartu duen dimentsio eta abiada. Munduko ondare linguistikoa kinka larrian dago. Aurreikuspenen arabera, 2100. urterako munduan dauden 6.000 hizkuntzetatik %90 inguru desagertu egingo dira.

Euskarak berak ere, gure garaietara gerturatu ahala, heriotza geroz eta hurbilago izan du. 1970eko hamarkadara euskara hiltzorian iritsi zen: ofizialtasunik eta prestigiorik gabe,

debekatua, jazarria, batasun faltan, belaunaldi katea etenda, etxeaz besteko mintza eremuetatik kanpo eta ia-ia zaharren ahoetan baino ez. Hitz batean, inoizko ahul eta hitzun kopuru txikienarekin. Desabantaila handiegia espainola eta frantsesa bezalako hizkuntza erraldoiekin (munduko 2. eta 5.a, hurrenez hurren) lehian aurrera egiteko. Bazirudien mirari batek baino ezin zezakeela patu horretatik libratu.

Hizkuntzak, ordea, ez dira berez hiltzen, ezta horrelako egoerara berez iristen ere. Hizkuntza bateko hitzunek ez dute sekula euren hizkuntza hiltzeko gogorik izan, eta bidean hizkuntzaz aldatu baldin badute, ziurrenik, bere hizkuntzaren naufragioan, hau da, hizkuntzaren bazterketa, jazarpen eta prestigio galera prozesuan, itota ez hiltzeko izan dela esan daiteke.

“Me ne vidn cewsel sawznek! (Ez nahiz ingelesez mintzatuko!)” horiexek izan ziren Dolly Pentreath kornubieraren azken hitzunak, 1777an, hiltzear zela jaurtitako hitzak. Badirudi, bere ama hizkuntza sekula gehiago beste inoren ezpainetan ez zela izango pentsatzean, gertakari hark bere heriotzak baino zirrara handiagoa sortu ziola, eta noizbait kornubiera mintzatu zuten guztien izenean jaurti zituela erresistentzia hitzok. Nolabait, bai baitzekien bera hiltzearekin bere herriko kide guztiak, kornubierak sekula izandako hitzun guztiak, betirako desagertzen ari zirela.

Horiek horrela, euskaldunok ere ez gara salbuespena izan. Euskara XX. mende bukaerara gaixorik eta hala moduz iritsi izana, prozesu historiko konplexu baten ondorio da. Euskararen historia, politikoki eta kulturalki zapaldua izan den herri xehearen historia da. Hitzun gutxiko mintzaira izan da, inguruko hizkuntzetatik zeharo bereizia, ia ahoz baino erabili ez dena eta etengabe jazarria. Euskaraz bizi izan gara, baina erdaraz menperatu gaituzte.

Euskararen bilakaera: mendez mendeko biziraupen borroka

Sarritan entzun dugu euskararen jatorria misterio bat dela. Izan ere, eratu diren hipotesiak gorabehera, oraindik ere ezezaguna da bere jatorri zehatza. Jakin badakigu, *Homo sapiens* gizakia Afrikatik hedatu zenerako, bazuela hizkuntza gaitasuna. Alabaina, planetan gertatutako ondorengo banaketa linguistikoa ez dakigu zehazki nola gertatu zen. Badirudi, ordea, euskara berton, Pirinio inguruan, sortu eta garatu dela Historiaurretik gaurko egunetara arte.

Nolanahi ere, Mitxelenak esan bezala, bere jatorria baino misterio handiago dugu bere biziraupena. Izan ere, moldatzen eta aldatzen joan arren, beste asko ez bezala, euskara bizirik

mantendu da gaur arte: hizkuntza indoeuoparren lehen olatuaren aurrean lehendabizi, latinarenean geroago eta latinetik sortutako hizkuntzen aurrean azkenik.

Ezin jakin daiteke ziurtasunez euskarak erromatarrak iritsi aurreko mendeetan izan zuen hedadura eta bilakaera zein izan zen. Halere, jakin badakigu, duela bi mila urte, lur hauetan Erromatar Inperioa ezarri zenerako, iparraldetik, egungo Okzitaniaren hego-mendebaldeko zonalde zabala hartzen zuela; gutxi gorabehera, Lleidako Aran haranean (bide batez esatearren, euskarazko leku-izena duguna) jaiio eta Bordelen hiltzen den Garona ibairaino. Horren lekuko ditugu I, II eta III. mendeetako hilerri ugartan zizelkaturik ageri zaizkigun euskal jatorriko izenak. Hegoaldetik, egungo Burgos, Soria, Errioxa, Zaragoza, Huesca eta Lleidaraino hedatzen zela pentsa daiteke, ditugun lekukotasunak aintzat hartzen baditugu.

Erromatarrak iristean, euskarak nahiko eremu zabala hartzen zuen. Pirinioetako bi aldeetan hitz egiten zen, Ebrotik Garonara. Ziur aski, mendietara gehiago hurbildu ahala indartsuago, eta eremu horren bazterretan, galiera, zeltiberiera eta iberierarekin nahastuta. Erromatarren sarreraz geroztik, baina, euskarak bere atzeraldia hasi zuen latinaren mesedetan. Nolanahi ere, esan bezala, garai hartako hizkuntzetatik iraun duen bakarra dugu. Europa mendebaldean bizirik iraun duen hizkuntza aurre-indoeuopar bakarra.

Erdi Aroan ere euskararen eremua gaurkoa baino askoz zabalagoa zen. Hegoaldetik, egungo Burgos, Errioxa, Huesca eta Lleidara hedatzen zen. Zonalde horietan euskarazko toki-izenak lekukotzeaz gain, badira zenbait dokumentu. 1234. urtean, Gaztelako erregeak Ojastroko (Errioxa) biztanleei merinoaren aurrean euskaraz deklaratzeko eskubidea aitortu zien. Bestalde, badakigu, 1349an Huescako Udalak euskara debekatzen zuen ordenantza bat atera zuela. Iparraldeko eremuari dagokionez, badirudi egungo mugetaraino murriztua zela ordurako.

Erdi Aroan zehar, poliki-poliki, latin klasikoa kultu eta zeregin akademikoetara mugatuz joan zen eta latin arruntetik eratorritako erromantze ezberdinak nagusitu ziren. Aro Modernoan, joera hori errotu egingo zen estatu nazionalen lehen zantzuak agertzen hastearekin batera. Erregearen mendeko baino, gizonak nazio bateko kideak zirela zioen pentsaera modernoa sortzen hasi zen, gerora iraultza burgesen orubea izango zen ideia.

Testuinguru horretan, kultura nazionalak eta hizkuntza estandarrak sustatu ziren. Adibidez, Espainiak bere lurraldeak kristautu eta "zibilizatu" nahiko ditu, eta xede horretan hizkuntza lanabes garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. Izan ere, Nebrijak berak esan bezala, hizkuntza-politika inperioa egituratzeko ardatza izan zen beti. Gaztelania zena, ordurako

espainol bihurtuta, inperioaren hizkuntza eta oinarri bilakatu zen, komunikazio publikorako, kultura modernorako eta dominaziorako tresna politiko. Inperio bat, erlijio bat eta hizkuntza bat. Horra hor, paradigma berria.

Euskaldunok bi estatutan zatituta hasi genuen aro berri hori. Elite feudalak zapalduta eta, gainera, inperio arrotzen oinpean. Horrek eragin nabarmena izan zuen egoera linguistikoan ere. XVI. menderako euskararen lurraldea zeharo murriztua zen. Hein handi batean, egungo zazpi euskal probintzietara mugatzen zen ordurako.

XVIII. mendetik aurrera, kapitalismoaren hedapenarekin, iraultza burgesekin eta estatu nazionalen indartzearekin azkartu egin zen erdalduntzea. Ildo horretatik, XIX. eta XX. mendeetan biziko du estatu nazionalen homogeneizazio prozesuak bere une gorena.

Kapitalismoaren garapenak barne merkatu batu eta uniforme bat eskatzen zuen, eta hor garrantzia berezia hartzen zuen hizkuntza aniztasunarekin bukatzeak. Burgesia berriarentzat beharrezko bihurtu zen hizkuntza nazional bakarra izatea, hizkuntza unibertsalaren beharrezkoa baitzuen merkatua trinkotu, saretu eta eraginkorrago egiteko. Hortaz, garapen kapitalistaren aurrebaldintza bihurtu zen hizkuntza batasuna ere, eratzen ari ziren estatu nazional eta barne merkatuak ondo funtzionatzeko ezinbesteko bermea.

Mende horietan, muga linguistikoez gain, gainerako guztiak ere ezabatu egin ziren, industria iraultza ahalbidetzeko merkatu batek gutxieneko tamaina bat izan behar baitzuen. Horrela, urratsez urrats, merkatu nazional bateratuak eraikitzeke oztupoak kendu eta baldintzak sortu ziren: barne aduanen ezabaketa eta muga batasuna; txanpon nazional bakarra; neurri eta pisu unitateen batasuna; tokiko foru, estamentu eta pribilegioen abolizioa; legedi unibertsala; lurraren eta lanaren liberalizazioa; fiskalitate homogeneoaren ezarpena; eta abar.

Hortaz, esan bezala, merkatuaren lege-indar bateratzaile horiek mintzaira txikien aurkako lehia sutua abiatu zuten, eta bi mendetan, euskararen eremua murrizteaz gain, euskaldunok elebakar izatetik, euskaraz ere hitz egiten genuen espainol edo frantsesak izatera igaro ginen. Iraultza liberalaren puzzle-jokoan hizkuntza batasuna pieza garrantzitsua izan zen.

Izan ere, 1745ean Larramendik emandako datuei erreparatzen badiegu, Gipuzkoan, Ipar Euskal Herrian eta Bizkaiko erdialde eta ekialdean ia biztanleen %100 euskalduna eta elebakarra zela ikus dezakegu. Garai hartan, Euskal Herriaren bihotzean eliteek baino ez zekiten erdaraz, nahiz eta, ordurako, Araba eta Nafarroa hegoaldean, Bizkaia mendebaldean eta Baiona inguruetan erdarek indar handia zuten.

Euskalduntasun indartsu eta sakon horri aurre egiteko, aipatu berri dugun logikari jarraiki, hainbat neurri hartu zituzten Espainiako eta Frantziako Gobernuek. Horietan esanguratsuenak Felipe V.ak ezarritako Oin Berriko Dekretuak (1716) eta Frantziako Iraultzaren (1789) osteko lege eta arauak izan ziren. Neurri horiekin, hizkuntza nazionalak izateko aukeratutakoek baino ez zuten existitzeko eskubiderik izango. Ez da ahaztu behar, esaterako, Frantziako biztanleen herenak baino gutxiagok zekiela frantsesez XVIII. mende amaiera hartan. Nazionalismo jakobinoak Ilustrazioaren eta "*liberté, égalité, fraternité*" leloaren aterkipean larrutu zituen gutxiengo kulturalak, eta egun ere, setio horrek bere horretan dirau.

Beraz, garai hartan, estatua identitate erregionalak ezabatzeko eta hizkuntza ordezkapenerako berrantolatu zuten. Harrezkero, administrazioan, justizian, eskolan, eremu publikoan eta, oro har, eguneroko bizitzan euskarak ez du lekurik izan. Ordura arte ere, euskarak apenas izan zuen tokirik irakaskuntzan; baina, ordutik aurrera, kontua ez zen mugatu bazterketara, jazarpen zuzen eta sistematikoa abiatu baitzen, guztiok ezagutzen dugun eraztunaren zigor krudela lekuko. Hori bai hori benetako murgiltze eredu!

Eskolaz gain, soldaduska eta gerra ere gazteak erdalduntzeko baliatu zituzten, eta hori gutxi balitz, euskara kriminalizatzeko plan zehatza garatu zen. Frantzian, adibidez, euskara "*patois*" izendatu zuten, "fanatismoaren eta kontra-iraultzaileen" hizkuntza, balore aurrerakoi eta iraultzaileen aurkakoa.

XIX. mendea ere oso latza izan zen euskal herritarrentzat. Mende horretan Karlistaden eszenatoki nagusia izan zen gure lurraldea, eta Antzinako Erregimenaren kaltetan, goian aipatu burgesia liberalak aurrerapen handiak eskuratu zituen. Ordutik aurrera, zentralizazioa azkartu eta espainiar estatu nazionalaren azken adreiluak jarri ziren.

Gerrak galdu ostean, industrializazio prozesu azkarra bizi izan zen, batez ere Bilbo inguruko mehatze guneeetan. Lantegi haietara Espainiako beste lurraldeetatik etorkin andana etorri zen. Bizkaiak, adibidez, bikoiztu egin zuen urte horietako biztanleria: 1857an, 160.000 pasatxo baziren bizkaitarrak (horietatik %85 euskaldunak); 1900ean, kanpotarren etorrerarekin 311.361 izatera iritsi ziren. Gipuzkoan, berriz, 155.000 biztanle izatetik; 195.850 izatera igaro zen.

Laburbilduz, XIX. mendean, euskarak atzeraka jarraitu zuen tai gabe. Euskararen eremuko bazterretan (Araba, Nafarroa...) berezko hiztunak euskara baztertuz eta erdaldunduz joan ziren, eta lurraldearen bihotzeko zonaldeetako herri euskaldun txikiak (Gipuzkoako

ibarrak, Bilboko itsasadarra...), milaka langile atzeritarren etorrerarekin, hiri erdaldun bihurtu ziren. Norabide bereko prozesu bikoitza.

Euskararen ezagutzari erreparatzen badiogu, esanguratsua da hamarkada horietan izandako bilakaera: 1866an, Bizkaian biztanleen %81,4; Gipuzkoan %96,6; Nafarroa Garaian %30; eta Iparraldean %65 ziren euskaldunak. Mende bukaerarako, Bizkaian %15,1; Gipuzkoan %45; Nafarroa Garaian %11; eta Iparraldean %34,5. Hau da, urte gutxiren buruan, euskal herritarren %52 euskalduna izatetik, %22ra jaitsi zen kopurua. Mende hasieran W. Humboldt hizkuntzalari prusiarrak egindako zorigaiztoko iragarpen hura betetzera zihoala zirudien: modernizazioarekin euskara desagertzeko bidean zen.

Alabaina, foruen galerak, zentralizazio politikek, etorkin uholdeak eta euskararen nahiz erlijio eta balio tradizionalen atzerakadak erreakzio bat eragin zuten. 1895 inguruan euskal nazionalismoa sortu zen, integrista eta ultrakatolikoa. Abertzaletasun horren ardatza erlijioa eta arraza izan ziren arren, zeharka, hizkuntzak ere nolabaiteko pisua hartu zuen, batez ere landa eremuko euskaldunek mugimendu berriarekin bat egitean.

Ondorioz, XX. mende hasieran, euskal pizkunde bat izan zen: euskal kontzientziaren hedapena, ekoizpen idatziaren handitzea, hezkuntza arloko zenbait saiakera, ikerketak, argitalpenak, egunkari eta irratsaioen sorrera eta abar. Horrez gain, hainbat elkarte euskaltzale ere sortu ziren; eta azkenik, 1918an, Euskaltzaindia bera. Bestalde, ez da ahaztu behar, 1936ko estatutuak euskarari ofizialtasuna aitortu ziola. Mugimendu hark bere arrastoa utziko zuen hurrengo hamarkadetarako.

Haatik, 1936ko gerraren ostean, Hegoaldean ezarri zen diktadura militarra ia-ia akabatzerainoko kolpea eman zion euskarari. Errepresioak inoiz ezagutu gabeko gogortasuna hartu zuen, batez ere gerraosteko urteetan. Ordura arteko neurriez gain, euskararen arrasto oro desagerrarazteko saiakera sutua izan zen. Adibide batzuk ematearren: "agur" hitza debekatu zen, herri izenei euskal grafia kendu zitzaien, euskarazko pertsona izenak erabiltzea galarazi zen, hilobietako inskripzioak ezabatu ziren, euskara lagunartean egiten zutenak zelatatu eta zigortu egin ziren sistematikoki, mezak euskaraz emateko oztopoak jarri ziren eta abar eta abar.

Hasieran esan bezala, 1970eko hamarkadarako euskararen heriotzak gertu zirudien. Euskal Herrian 500.000 euskal hitzun inguru geratzen ziren: Gipuzkoan 276.843, Bizkaian 140.229, Iparraldean 78.453, Nafarroan 35.228, eta Araban 1.863 (horietatik 1.432 Aramaion). Kopuru txikia; euskararen etorkizuna kolokan jartzerainokoa. Gainera, euskara erabiltzen zuten

hiztun gehienak 40-45 urtetik gorakoak eta alfabetatu gabeak ziren. Belaunaldi gazteenek, erdaraz hezi eta ikasiak, ez zuten lagunartean euskararik erabiltzen. Etxe askotan aurki zitekeen egoera zen ondokoa: alde batetik, erdaraz zailtasun handiekin hitz egiten zuten adineko gurasoak eta, bestetik, euskaraz esaldi oso bat josteko zailtasunak zituzten seme-alabak.

Horrez gain, ordurako euskara landa eremura murriztutako hizkuntza zen gehienbat, eta baserritarren hizkera izatearen estigma zuen, atzeratua eta baliogabea. Zama handia zen hura euskal jendartea hiritartzen ari zen garai hartan, industrializazio eta hirien hazkunde beteko garaian. Izan ere, 1960ko hamarkadatik aurrea industrializazioak bigarren olatu bat bizi izan zuen eta milaka etorkin gehiago iritsi ziren Euskal Herrira. Orduko hartan, etorkizun garratza sumatzen zitzaion hizkuntza murriztu, baztertu, debekatu, jazarri eta estigmatizatuta hari.

Mirari batek baino ezin salba zezakeela zirudien horretan, zerbait gertatu zen. Diktaduraren gainbehera baliatuz, euskarak aurrera egin zezan baldintzak sortzen hasi ziren. Belaunaldi berrien grinari esker, euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna sator-zulotik atera zen. Gainera, hastapenetako abertzaletasun eskuindarraren aldean, abertzaletasun berri horrek sozialismoaren eta mundu mailako esperientzia iraultzaileen iturritik edan zuen. Arraza edo erlijioaren orde, euskara jarri zen erdigunean. Horrez gain, Euskal Herrira lanera etorritako etorkinak ere barnebildu zituen mugimendu berri hark, klase batasuna baitzuen oinarri. Bultzada berri horren eraginez, euskara suspertzen hasi zen. 1975. urtean diktadorea hiltzeak pizkunde berriari hauspoa eman zion.

Alde batetik, ikastolak sortu ziren, euskara hutsezko eskolak. Bestetik, helduak alfabetatu eta euskalduntzeko euskaltegiak eratu ziren, hasiera batean gaueskola bezala ezagunagoak. Klandestinitatean funtzionatu arren, herri-ekimen horiei esker, belaunaldi berriek, atzerritik etorritakoek edota gurasoengandik euskara jaso ez zutenek euskara ikasi ahal izan zuten. Gainera, euskarazko hainbat aldizkari eta irrati ere jaio ziren, eta musikagintzan eta literaturan ere gerra aurreko garaietatik ikusi gabeko pizkunde bat bizi izan zen.

Horrek guztiak atzeraezina egin zuen euskara batu eta estandar baten sorrera, ezinbesteko baldintza baitzen liburu eta eskola materialetarako, nahiz Euskal Herri osoko euskaldunek elkar ulertzeko. Hain hizkuntza txikia izanda, harrigarria zen euskara nolako zatiketa maila izatera iritsi zen. Sarri aberastasun bezala ikusi izan dena, zinez, debeku, bazterketa eta jazarpenaren zauria baino ez da; banaketa administratiboaren, desegituraketa

politikoaren, menpekotasun kulturalaren eta ofizialtasunik ezaren orbana; hain hiztun komunitate txikia duen hizkuntzarentzat heriotzara bidean lehen pausoa.

Euskara estandarra eratu zenetik, ordea, hizkuntzak batasuneranzko bidea hasi zuen. Dialektoen arteko aldea murriztu, eta erregistro eta erabilera guztietarako hizkuntza sendo eta erabilgarri bat gorpuztu da. Euskara batua egin arte euskara ia ezin zitekeen hizkuntza oso eta bakartzat jo, hango eta hemengo euskaldunek ez baitzuten ia elkar ulertzen. Hizkuntza baturik ez egoteak zailtasunak baino ez zekartzan euskararen zabaltze, indartze eta biziraupenerako.

Ordutik, euskararen beheranzko joera orokorra gelditzea lortu da, eta egun 860.000 hiztun inguru ditu, gehienak alfabetatuak. Alabaina, horiek ez dira Euskal Herriko 3.000.000 biztanleen herenera ere iristen. Gainera, euskaldunen hazkunde hori, batez ere, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa iparraldean gertatu da, euskara koofiziala den eremuan. Gainerako lurraldean eta, batik bat, Ipar Euskal Herrian euskararen egoerak okerretik makurrera egin du, han ez baitu inongo aitortzarik.

Izan ere, oro ez da urre. Ezagutza datuak ikusita espero zitekeen erabilera mailarik ez da lortu: 1989an %10,8; 2006an %13,7; eta 2016an %12,6. Hirigune nagusiek oso erdaldun izaten jarraitzen dute, eta azken urteetan arnagune deituriko eremuetan ere atzerakada nabarmena ikus daiteke. Bestalde, euskara batuaren sorreraz geroztik, hizkuntza erregistro jaso sortu den arren, oro har, hizkuntzaren kalitateak behera egin du, ziur aski, erdaren presentzia masiboaren ondorioz, eta egungo euskaldun gehienena ama hizkuntza erdararen bat delako.

Eustea lortu badu ere, milurteko berria euskaldun elebakarrik gabe hasi du euskarak. Diglosi egoera betean eta hizkuntza politika propiorik garatzeko tresna eraginkorrik gabe. Horrez gain, azken urteetan, euskararen aldeko mugimendua eta euskararen inguruko kontzientzia apalduz eta motelduz joan dira.

Jakina da igel bat ur irakinetara botaz gero, beroa sumatu orduko jauzi eta ihes egingo duela azkar batean. Aldiz, igela ur epeletan sartzen badugu eta, poliki-poliki, ura berotuz baldin bagoaz, arriskuaz ohartu orduko egosita hilko da. Badirudi euskaldunok ere igel errearen sindromea dugula. Frankismoko bazterketa, jazarpen eta eraso bortitzen aurrean erantzuten jakin genuen. Aitzitik, egun, ur berotan egosten ari gara, goxo-goxo, ohartu ere egin gabe, sasi-ofizialtasun eta sasi-normalizazioaren lapikoan. Bada esnatzeko ordua!

Zapalkuntzaren zauria eta bizitzeko grina

Euskararen biziraupena ez da merkea izan. Ikusi bezala, berarekin hizkuntza kaltetu eta eraldatu duten lau prozesua gertatu dira: atzerapen geografikoa, bazterketa soziala, egitura linguistikoa kaltetu izana eta muturreko zatiketa dialektala.

Arestian ikusi bezala, azken mendeetan beti egon da, belaunaldi batetik bestera, euskara galdu den eskualderik. Esaterako, 1990eko hamarkadan Erronkariko ibarretik desagertu zen euskara, eta egun, Ipar Euskal Herria da horren adibiderik garbiena: 25 urtetik beherakoen %20 ere ez dira euskaldunak, eta oraintsu arte euskaldun-euskaldunak izandako herriak erdalduntzen ari dira.

Zentzu horretan, azpimarratu beharrekoa da, historian zehar euskara galdu duten lurraldeek, lehenago ala beranduago, Euskal Herria izateari utzi diotela. Izan ere, komunikazio tresna izateaz gain, hizkuntza identitate faktorea nagusia izan da betidanik, herri nortasunaren ardatza eta kulturaren bizkarrezurra. Euskararik gabe, Euskal Herririk ez da.

Horrekin ez dugu aditzera eman nahi euskal identitatea berbera izan denik historia guztian zehar, ezta formazio sozial historiko ezberdin guztietan barrena gaurdaino iritsi den euskal esentzia nazional betiereko eta jarraikor bat izan denik ere. Ezta gordailu bezala bestelako hizkuntza, herri eta kulturetatik erabat isolatua mantendu den arraza garbiko gizatalderik egon denik ere. Soilik, mendeetan barrena jazarria eta gutxietsia izan den hiztun-komunitate bat izan dela Pirinioen magalean, belaunaldiz belaunaldi, lurraldeak galduz joan dena. Argi utz dezagun hori, ez baita gure asmoa egun bizi dugun zapalkuntza nazionala bere testuinguru historikotik ateratzea.

Bestalde, sarri askotan, hizkuntza batentzat eremu geografikoa galtzea bezain kaltegarria izan ohi da hainbat erabilera eremutatik kanpo geratzea. Ikusi dugun moduan, hasieratik bertatik euskara alboratu eta gutxietsia izan da estatu aparatu orotan. Aipatutako Euskal Herri hori, agian salbuespen motz batzuk kenduta, ez da sekula komunitate politiko bakar bezala konfiguratu. Izan ere, laster hasi ziren beste hizkuntza eta kulturetako talde indartsuagoak hemengoaz jabetzen eta bere egituraketa eta erakundeak ezartzen.

Iruñea eta Nafarroako erregeen inguruan nolabaiteko artikulazio politikoa lortu zenean ere, gutxi iraun zuen, eta gainera, erromatarren garaian bezala, latina eta erromantzeak izan ziren hizkuntza idatzi bakarrak. Euskarak ez zuen sekula lekurik izan Nafarroako Erresumako dokumentu eta esparru ofizialetan, ezta ordutik izan diren bestelako egitura politikoetan ere.

Euskaldunek historikoki jasan dugun banaketa politiko-administratibo horrek eta gure hizkuntzak izandako estatus apalak, bide eman zioten euskararen degradazio eta muturreko

zatiketa dialektalari, sarritan elkarren ondoko bailaretako euskaldunek ere elkar ez ulertzeraino.

Horrek ez du esan nahi, euskara berez ezin zitekeenik hizkuntza kultu eta nazional bihurtu, edota izatez ez duela baliorik goi mailako zereginetarako: literatura, administrazio edo arterako adibidez. Latina, gaztelania edo frantsesa ez ziren hizkuntza nazional bihurtu euren berezko perfekzio eta ezaugarriengatik. Aspalditik dakigu, hizkuntza bat ez dela berez hobe. Hizkuntza oro molda daiteke eremu orotara, erabilera orotara; hizkuntza orok balio dezake mundu modernorako. Batzuek garapen hori lortu baldin badute, ez da berez duten ahalmen bereziagatik izan, arrazoi ekonomiko, sozial eta politikoengatik baino. Axularren iradoki zuen moduan, ez dago berez hizkuntza traketsik, eta hizkuntzaren batek horrelako hutsik ageri badu, landu zezaketen adina landu ez zutelako da, edota lantzen utzi ez zutelako.

Izan ere, gurean, ez da euskaraz funtzionatu izan duen aristokrazia edo burgesiarik izan. Euskaldun elebakarrek beti izan dute bidea moztuta botere gune eta espazio sozial garrantzitsuenetarako eta, beraz, euskarak ere bai. Klase zapaltzaileek beti mintzatu eta funtzionatu izan dute erdaraz, bai jatorriz euskaldun zirenek, bai kanpotik etorriek.

Nolanahi ere, Erdi Aroan agintariei ez zitzaion larregi axola herri xehea euskalduna izatea. Horrek ez baitzuen euren boterea kolokan jartzen eta, gainera, nekazariak erdaraz ez jakiteak mailaketa soziala are gehiago nabarmentzen baitzuen. Mende luzez, gizartearen estratifikazioa egungoa baino zurrunagoa izan zen eta, hein batean, euskarak horri esker iraun zuen nekazarien mingainetan. Arestian ikusi bezala, gerora etorri ziren inperioen, estatu modernoek, barne merkatuen eta nazio homogeneoen behar eta sorrera.

Alta, egia da elizgizonek sarritan euskara bultzatu zutela, baina ez Eliza osoak, ez beti eta ezta toki guztietan ere. Larramendi edo Azkue bezalako salbuespen nabarmenak salbuespen, Elizako aparatuek euskara doktrina-kristaua herritar xumeengana iristeko tresna bezala baino ez zuten erabili; horrek, sarri askotan, zeharka bazen ere, euskara lantzeko eta garatzeko parada eman arren. Ildo berean koka genezake, adibidez, Joana III.a Albretekoak Itun Berria euskaratzeko emandako agindua ere.

Laburbilduz, euskara batez ere herriaren eta klase zapalduen hizkuntza izan da. XII. mendean idatzita geratu zen bezala, "*lingua navarrorum*", naba edo lautadetan bizi eta lan egiten zutenen hizkuntza, nekazariena, herritar apalena.

Azken finean, herri xehea izan da euskarari eutsi diona. Segur aski hainbatetan atxikimendu sutsuagatik, nortasun eta maitasunagatik; baina, jakina, beste askotan inertzia,

ezinbestean edo naturaltasunez. Baina, euskararen aldeko jarrera eta ekimena beti sortu izan da herritik. Botere aparatuek gehienetan trabak baino ez dituzte jarri, eta oztopatu ez dutenetan, atzetik eta azken orduan etorri dira, halaberrez euskaltzale bihurtuz edo euskaratik etekinak ateratzeko intentzioz.

Askok, ordea, pentsatuko du euskara euskaldunen erruagatik dagoela dagoen bezala; gu geuk baztertu dugulako. Egia da bertoko askok bazterrean utzi izan dugula euskara, balio oro ukatu izan diogula; baina, ikusi dugun moduan, jarrera horrek arrazoi zehatzak izan ditu.

Pairatutako jazarpen eta bazterketa sozialaren erruz, hiztunak uste izaten du bere hizkuntzak ez duela erabilgarritasun eta baliorik. Horregatik, askotan, gurasoek ez diete seme-alabei euren hizkuntza irakasten, edo hizkuntza nagusia lehenesteko hautua egiten da, horrela bizitzan gehiago izango garelakoan edo.

Ehunka urtetako kultur menderatzearen ondorioz, ez da zaila jendeak amore ematea. Hainbeste errepresio, jazarpen, iseka eta irainen ostean, nork esan dezake euskaldunak borondatez hartu duela erdara? Nork esan dezake bere kabuz erabaki duela ondorengoei ez irakastea? Auto-gorroto linguistikoa fenomeno ezaguna da hizkuntzalaritzan, testuinguru eta emozioek zeresan handia baitute hiztunen hautuetan. Ez da beti erraza izan euskaldun jaio eta harro egotea. Hortaz, hiztunei euren hizkuntza herio-bidera bultzatu izanaren errua egotzi aurretik, komeni da horren erro historikoak kontuan izatea.

Historian zehar agintea eta boterea ezartzen saiatu diren estatu edo erresuma guztiek egin dute hizkuntza politika jakin bat hemen. Planifikatua batzuetan, inprobisatua besteetan; jazarpen agerikoa gehienetan eta ezkutua gutxienetan. Erdi Arokoa dugu lehen zigor lekukotasuna, XXI. mendekoa azkena. Hizkuntza desagertzeko indarkeriazko estrategia bertsua mendeetan zehar. Gainera, bertokoa debekatzen zen bitartean, kanpoko hizkuntzari botere, bitarteko, babes legal eta prestigio sozial osoa eman izan zaio.

Atzerapena ez da modu naturalean gertatu, ezta euskaldunen borondatez ere. Ez dugu euskaldunok libreki aukeratu gurea albo batera utzi eta kanpoko hizkuntza bat hobestea. Paradoxikoki, ordea, biziraupena bermatzeko erabakigarri bihurtzen da hiztunen borondatea. Izan ere, sasi guztien gainetik euskarak iraun badu, esan bezala, hori hala izan zedin bereak eta bi egin dituen hiztun komunitate bat egon delako izan da.

Zorionez, euskarari eusteko ahalegin kolektiboa aspaldikoa da, eraginkorra garai batzuetan eta ez hainbeste besteetan. Hizkuntza beti izan da nortasun ikur, komunitatearekiko lotura, ama hizkuntza, norberaren eta taldearen pentsamendu eta adierazpenetarako tresna.

Horrek sor zezakeen atxikimendua, eusteko gogoa eta sena. Norberaren hizkuntzari eusteko sen indartsu bat egon ezean ezin uler baitaiteke aurrera egitea.

Hori horrela izan arren, beste hainbat faktorek ere eragin dute euskara galdu ez izana. Goiko lerroetan aipatu bezala, arrazoi praktiko eta funtzionalek, atxikimendu naturalak, komunitate eta familia ehun sendoek, Elizaren praktikak garai eta lurralde jakinetan, euskal orografia bereziak, gizartearen konpartimentazioak, euskarak eskaintzen zuen talde nortasunak, nazio kontzientzia pizteak, edota immigrazio masiboa gurean berandu samar gertatu izanak.

Dena den, pozgarri da hain hizkuntza handien aurrean orain arte bizirik iraun izana. Alde batetik, guretzat, sutzuki defendatu izan dugunontzat; baina, bestetik, baita munduko herritar guztientzat ere. Hizkuntza bat galtzean mundua ulertzeko modu bat hiltzen baita, bizitzeko modu bat, komunitate batek den bezalako izateko daukan eskubidea. Haatik, atzera begiratzea ez da nahiko, euskaldunok eta hizkuntza gutxitu guztietako kideok etorkizunak zer ekar diezaguen aztertzen hasi beharrean gaude.

Globalizazio kapitalistaren mehatxua

Azaldu dugun moduan, estatu nazionalen sorrerak milaka hizkuntza eta kultura birrindu ditu azken berrehun urteetan. Zoritxarrez, kapitalismoaren garapenak estatu mugak aspaldi gainditu zituen, eta egun mundu mailakoa dimentsio du. Testuinguru horretan, hizkuntzek funtzio zehatz bat hartu dute.

Alde batetik, oligarkiak dominaziorako baliatzen dituen hizkuntza handiak ditugu. Lan merkatu internazionalaren beharrei erantzunez, kultura kosmopolitaren oinarri diren hizkuntzak. Hein batean, ingelesa eta, agian, etorkizun batean berarekin lehia dezaketenak. Bestetik, oraindik, tokian toki burgesia nazional zehatzen interesak betetzeko baliagarri dirauten hizkuntza nazionalak, geroz eta mehatxatuago daudenak ingelesa bezalako hizkuntza erraldoien aurrean. Azkenik, kapitalaren intereserako traba direnez, suntsitu, edota asko jota negozioerako balia ditzaketen hizkuntza txikiak. Zentzu horretan, azken urteetan, badirudi Europako estaturik gabeko nazioak turistentzako helmuga exotiko bezala baino ez dituela ikusten burgesiak. Kultura horien patua folklorizazio, merkantilizazio eta minorizazio prozesua baino ez da.

Ez dugu harritu behar. Honako hau aspalditik datorren joera da. Adibidez, ezin dezakegu ahaztu, egun euskal nortasun tradizionalaren ezaugarritzat dugun ohitura sorta (euskal dantzak, jantziak, herri-kirolak, pilota-jokoa, sukaldaritzak tradizionalak, estropadak eta abar),

XIX. mendean, turistak erakarri eta entretenitzeko sortu zela. Ordura arte, herri edo eskualderen batean soilik burutzen ziren usadioak arautu, moldatu eta orokortu egin ziren estatuetakoa aristokrazia eta burgesia udatiarrarentzat “euskal kultura” erakargarri eta salgarri bat sortzeko. Testuinguru horretan sortu zuten Frantzia *“Pays Basque”* etiketa (turistikoa) ere (hortik hain zabaldua den *“Pais Vasco”* izena). Aspaldi honetako *“Euskadi-Basque Country”* marka komertzialaren aurrekaria.

Hortaz, globalizazio kapitalista honetan etorkizun beltza du hizkuntza eta kultura aniztasunak. Diotenez, munduan geratzen diren 6.000 hizkuntzetatik 600 inguruk baino ez dute mende honetako langa igaroko. Honen kudeaketa estatu hegemonikoen esku dago, eta norgehiagoka horretan, asko jota dozena erdi hizkuntzek baino ez dute bloke anglosaxoiarekin lehiatzeko aukera. Egin kontu, munduko estatu txiki askotako hizkuntzen geroa ere kolokan baldin badago, zein den estaturik gabekoena.

Buruz buruko horretan, frantsesa bera ere ez da libratzen. Munduko bost kontinenteetan hitz egin arren, eta 200 milioitik gora hiztun izanda ere, kikilduta dago ingelesa edo txinera bezalako hizkuntza boteretsuen aurrean. Bere estatu barneko hizkuntza txikiekin hain gogor eta harroputza dena, hasia da bere burua babesteko neurriak hartzen. Horren erakusle ditugu, besteak beste, irratia nazionaletan ingelesezko abestien kopurua arautzeko azken urteetan hartutako lege-neurriak.

Egia da, historian zehar, beti eman izan dela hizkuntzen arteko talka. Arrain handiak txikia jan du beti, eta euskarak ere, Antzinaroan beharbada, hain hedadura zabala hartzeko hizkuntza txikiagoak irentsi zituen. Baina, oro har, sekula ez da horrelako genozidio etnolinguistikorik aurreikusi zerumugan. Kapitalak marraztutako kolore bakarreko mundurantz ote goaz?

Zorigaitz horren aurrean, behinola izan zen munduko hizkuntza aniztasuna mantendu, eta handia eta txikia harmonian bizitzeko ahaleginik. Izan zen oihaneko legea gainditzeko saiakerarik. Ludwi Lejzerrek, 1887an, esperantoa asmatu zuen. Gizateriaren bigarren hizkuntza izateko xedea zuen mintzaira planifikatua; ikasteko erraza eta neutrala. Jatorrizko hizkuntzarik ordezkatu gabe, guztiok elkar ulertzeko tresna. Hizkuntza-inperialismoarekin bukatzeko parada. Ez zuen esperotako arrakastarik izan. Arrazoiak: begi bistakoak.

Dena den, bidea irekita utzi zuen. Nork jakin, agian etorkizuneko mugimendu iraultzailearen batek hartuko du lekuko hori. Horrelako zerbaitek beharko luke bidea, bederen.

Izan ere, iraultzaileontzat ere beharizan erreala da munduko txoko ezberdinetako zapalduok elkar ulertu eta komunikatzea. Iraultza ere, izatekotan, mundu mailakoa izango baita.

Lehengora bueltatuz, argi dago kapitalismoak berezkoa duela hizkuntza eta kultura ezberdintasuna indarrez moldatzeko joera, eta norabide honetan jarraituz gero, ezinbestean, globalizazio kapitalistaren tsunamiak irentsiko gaituela. Hortaz, aukera bakarra, berak gu suntsitu aurretik sistema iraultzeko modua aurkitzea da.

Gure hizkuntza eta kultura kudeatzeko aukera erreala eskainiko digun boterea artikulatu behar dugu, besteak beste, euskarak eta euskal kulturak sistema kapitalistan duten forma merkantilizatu eta minorizatua gainditzeko tresnak eskainiko dizkigun boterea. Euskara hizkuntza oso eta osasuntsu bihurtzeko boterea. Norabide horretan, gaur-gaurkoz, ezinbestekoa zaigu euskararen zimenduak indartzen jarraitzea eta gure mugimendu eta antolakundeak perspektiba horretan kokatzea.

Artikuluaren izenburuari helduz, uste dut ikuspegia aldatu behar dugula. Kontua ez da ea euskarak iraultza sozialista burutzeko balio digun ala ez, baizik eta ea iraultza prozesuak nolakoa behar duen izan euskaldunok eta, oro har, komunitate kultural eta linguistiko guztietako kideok duintasunez bizi ahal izateko. Handia da esku artean dugun erronka eta egoerak analisi sakon eta zehatza eskatzen du, alabaina berandu baino lehen heldu behar diogu horri. Zeregin horretan, militante euskaltzaleok berebiziko erantzukizuna dugu.